



Arartekoaren 2017S-1918-16 Ebazpena, 2017ko azaroaren 10ekoa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari iradoki diogu ezgaitasunen bat duten pertsonen sustapenaren inguruko ikuspegia aintzat har dezan, egiten dituen hezkuntza zerbitzuei esleitutako prezio publikoak zehaztean.

Aurrekariak

1. Ezgaitasunen bat duen pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan. Horren bidez adierazi zuen ez zegoela ados Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako prezio eta tasa publikoen politikarekin. Izan ere, interesdunak esandakoaren arabera, araubide oparo eta zabala bazegoen ere, eta horren baitan organismo autonomo edo menpeko organismo bakoitzak bere irizpideak zituen arren, orokorrean, ez zen aintzat hartzen ezgaitasunen bat izateak eskubidea ematen zuenik, gutxienik ere, sail horrek eskainitako zerbitzuen prezioan murrizketarik izateko.

Halaber, kexagileak azaldu zuen, aurreko ekitaldian Hezkuntza Eskola Ofizialean matrikula egin zuenean eta EGA ziurtagiria eskuratzeko azterketarako eskubideak ordaindu zituenean, egiaztatu zuela, zerbitzu horiek arautzen zituen araubidean ez zela ezgaitasunen bat zuten pertsonentzako hobaririk jasotzen.

Haren esanetan, jakinarazpena bidali zuen Hezkuntza atarira, egoera horren berri emate aldera. Hala ere, dioenez, ez zuen eskaera horri buruzko berriazko erantzunik jaso.

2. Bazter utzi gabe Hezkuntza Sailak egiten dituen zerbitzuei dagozkien prezio publikoen erregimena ezartzeko legezko eskumena duela, erakunde honek adierazi zion kexagileari berriaz erantzun behar ziola. Horrez gain, aipatutako sailari esan genion, oro har, ezgaitasunen bat izatea Hezkuntza Sailak kobratutako prezio publikoetan hobaria jasotzeko arrazoitzat hartzea komeni zela.
3. Hezkuntza Sailak hauxe adierazi digu helarazitako erantzunean: prezio publikoei dagokienez, ez dutela legeetan jasotakoez besteko salbuespenik edo hobaririk ezartzeko asmorik. Alde horretatik, azaldu du prezio publikoei lotutako salbuespenak eta hobariak egoera ugari aplika dakizkiekeela. Hortaz, legegileari dagokio egoera horiek zein diren zehaztea.

Hain zuzen ere, sail horrek igorritako txostenaren testu osoak hau dio:





"INFORME DE LA DIRECCIÓN DE CENTROS ESCOLARES EN RELACIÓN CON LA PETICIÓN DE INFORMACIÓN FORMULADA POR EL ARARTEKO SOBRE LA POSIBILIDAD DE RECOGER LA DISCAPACIDAD COMO UNA CAUSA DE EXENCIÓN DEL PAGO DE LOS PRECIOS PÚBLICOS DE LOS SERVICIOS EDUCATIVOS PRESTADOS POR EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

En contestación al escrito del Ararteko, de fecha 7 de noviembre de 2016, (Referencia 1918/2016/QC), se comunica lo siguiente:

1.- El criterio utilizado por el Departamento de Educación para determinar las exenciones o bonificaciones en el pago de los precios públicos correspondientes a los diferentes servicios de enseñanza proporcionados por este Departamento, es el de cumplir lo que en ese sentido y en cada momento establezcan las Leyes vigentes.

2.- Así por ejemplo, en la Orden de 10 de julio de 2013, por la que se determinan los precios públicos de los servicios educativos que presta el Departamento de Educación, (posteriormente modificada por las Órdenes de 3 de junio de 2014, 9 de julio de 2015 y 16 de mayo de 2016), se contempla la exención del precio público para los alumnos y alumnas miembros de familias numerosas de categoría especial, y la bonificación del 50% de dicho precio para los alumnos y alumnas miembros de familias numerosas de categoría general.

Estas exenciones y bonificaciones se aplican en cumplimiento de lo establecido en el apartado 2 del artículo 12 de la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas, (BOE de 19-11-2003), que determina que "en el ámbito de la educación, en todos los regímenes, niveles y ciclos tendrá lugar una exención del 100 por ciento a los miembros de las familias numerosas clasificadas en la categoría especial y una bonificación del 50 por ciento para los de categoría general de las tasas o precios públicos que se apliquen a los derechos de matriculación y examen, por expedición de títulos y diplomas académicos, docentes y profesionales, y cualesquiera otras tasas o precios públicos establecidos en el citado ámbito".

Del mismo modo, también se recoge en la Orden anteriormente citada la exención del precio público para las alumnas y alumnos incluidos en los supuestos contemplados en el artículo 25 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

Esta exención se aplica en cumplimiento de lo establecido en el artículo 38 de la Ley 29/2011, de 22 de septiembre, de Reconocimiento y Protección Integral



a las Víctimas del Terrorismo, (BOE de 23-09-2011), que determina que "las Administraciones Públicas competentes y, en su caso, las autoridades educativas adoptarán, en los distintos niveles educativos, las medidas necesarias para asegurar la exención de todo tipo de tasas académicas en los centros oficiales de estudios a las víctimas de actos terroristas, así como a los hijos de aquéllos que han sufrido daños físicos o psicológicos como consecuencia de la actividad terrorista".

En el mismo sentido, la Ley 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo (BOPV de 01-07-2008), establece en el apartado 1 de su artículo 20 que "quienes hayan sufrido daños personales físicos o psicológicos de singular gravedad, sus cónyuges o personas con las que convivan de forma permanente con análoga relación de afectividad, y sus hijos estarán exentos de todo tipo de tasas académicas en los centros oficiales de estudios de todos los niveles de enseñanza".

3.- No es intención del Departamento de Educación establecer otras exenciones o bonificaciones del pago de los precios públicos correspondientes a los diferentes servicios de enseñanza proporcionados por este Departamento, que no estén recogidas en alguna Ley.

Ciertamente pueden existir numerosas situaciones que podrían considerarse para el establecimiento de dichas exenciones o bonificaciones, referidas a la persona interesada o a diferentes miembros de su familia, tales como la situación de discapacidad, la pertenencia a una familia monoparental, encontrarse en situación de paro laboral, estar jubilado, tener más o menos de una determinada edad, tener determinadas cargas familiares, poseer un bajo nivel de renta, haber sido víctima de violencia de género, y muchas otras situaciones similares.

Las situaciones que pudieran ser susceptibles de generar el derecho a una exención o bonificación del precio público podrían ser innumerables, pero corresponde al legislador determinar cuáles han de ser dichas situaciones, del mismo modo que así lo ha determinado para el caso de las familias numerosas y las víctimas del terrorismo.

4.- El legislador no ha determinado esa exención o bonificación del pago de los precios públicos de enseñanzas no universitarias a los alumnos y alumnas con discapacidad. En el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, (BOE de 03-12-2013), no se contempla ninguna disposición en este sentido.



5. Por el contrario, la exención del abono del precio público para las personas en determinadas situaciones, entre las que se incluye la discapacidad, sí se recoge para las tasas y precios públicos de los servicios de enseñanza universitaria.

En el apartado 4 del artículo 45 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, se determina que "con objeto de que nadie quede excluido del estudio en la universidad por razones económicas, el Gobierno y las Comunidades Autónomas, así como las propias universidades, instrumentarán una política de becas, ayudas y créditos para el alumnado y, en el caso de las universidades públicas, establecerán, asimismo, modalidades de exención parcial o total del pago de los precios públicos por prestación de servicios académicos. En todos los casos, se prestará especial atención a las personas con cargas familiares, víctimas de la violencia de género y personas con dependencia y discapacidad, garantizando así su acceso y permanencia a los estudios universitarios.

En cumplimiento de esta disposición legal, la Orden de 9 de julio de 2015, por la que se fijan los precios a satisfacer por los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para el año académico 2015-2016, y se definen las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismos, (BOPV de 14-07-2015), recoge tales exenciones o bonificaciones para las alumnas y alumnos pertenecientes a familias numerosas, familias monoparentales o de otro tipo, (artículo 12), víctimas o familiares de víctimas del terrorismo, (artículo 13), alumnado perteneciente a familias que tenga alguna persona con discapacidad, (artículo 14), y víctimas de violencia de género, (artículo 15)."

Gogoetak

1. Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmenaren 34. artikulua hezkuntza-eskubidea du hizpide eta, artikulua horren lehenengo atalean, eskubide hori aitortzeko eta bermatzeko oinarri hartu beharreko printzipioak jasotzen dira. Hau dio, hain zuzen: *"Estatu alderdiek aitortzen dute persona desgaituen hezkuntzarako eskubidea.*

Eskubide hori eragingarri egiteko asmoarekin, bereizkeriarik gabe eta aukeraberdintasuna oinarri, estatu alderdiek maila guztiak eta bizitza osorako irakaskuntza barneratzen dituen hezkuntza-sistema ziurtatuko dute, helburu izanik:





*a) Oso-osoan garatzea giza ahalmena eta duintasunaren nahiz autoestimua-
ren esangura, eta giza eskubideei, oinarrizko eskubideei eta giza aniztasunari zor
zaien errespetua indartzea;*

*b) Ahalik gehiena garatzea persona desgaituen nortasuna, talentua eta sormena,
bai eta horien gaitasun mental nahiz fisikoak;*

*c) Pertsona desgaituek gizarte aske batean eragingarritasunez parte hartzeko
aukera izan dezatela ahalbidetzea”.*

2. Eskubide horren berri ematen du desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta
haien gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartzen duena
azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 18. artikulua. Hauxe
ezartzen du:

*“1. Desgai den pertsona orok eskubidea du bere osotasun fisikoa eta mentala
errespetatu daitezen, gainerakoekiko baldintza-berdintasunean.*

*2. Hezkuntza-administrazioari dagokio hezkuntza-sistema inklusiboa
ziurtatzea hezkuntzaren maila guztietan, eta, orobat, desgaitasunen bat duten
ikasleei bizitza osoko irakaskuntza eta oinarrizko hezkuntzan postu bat
bermatzea eskolan, arreta berezia jarriz desgaitasunen bat duten ikasleen
hezkuntza-beharrizan askotarikoei; horretarako, beraz, ikasketan edo
inklusionan arreta berezia behar dutenentzako laguntzak eta doikuntza
zentzuzkoak arautuko dira.*

*3. Ikasle horiek hezkuntza bereziko zentroetan edo horien ordeko unitateetan
eskolaratzea kasu bakarrean egingo da, salbuespenez: haien beharrezanez ezin
zaienean erantzun zentro arrunten dibertsitateari kasu egiteko neurriekin, eta,
orduan ere, gurasoen edo legezko zaintzaileen iritzia kontuan hartuz”.*

Lege horretatik ondoriozta daiteke, lehenik eta behin, hezkuntza administrazioek
ezgaitasunen bat duten pertsonen prestakuntzarekiko duten konpromisoa
hezkuntza sistemako maila guztien mugetatik haratago doala, eta barne hartzen
dituztela *“ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitzan zehar burututako
ikasketak”.*

Gainera, ezgaitasunen bat duten pertsonen gainerako pertsonen baldintza
berdinetan ikasi behar dute, eta horien inklusioa bermatu behar da.

Dena dela, eztaba da ezgaitasunen bat duten pertsonak, objektiboki, ez
direla gainerako pertsonen puntu beretik abiatzen ikaskuntza edo prestakuntza





jaso nahi dutenean. Hori dela tarteko, Arartekoak esku artean dugun kexa izapidetu bitartean defendatu izan du, oro har, ezgaitasunen bat izatea Hezkuntza Sailak kobratutako prezio publikoetan hobaria jasotzeko arrazoitzat hartzea komeni dela, sail horri unean unean egokiak iruditzen zaizkion baldintzetan.

3. Pertsona guztien integrazio erreala lortzeko esfortzua egin beharra dago eta, horretarako, botere publikoei kostuak konpentsatzeko neurri ekonomikoak abian jar ditzaten eskatu behar zaie. Horrek neurri ekonomikoak hartzea eskatzen du (zuzeneko diru-laguntzen bidez edo zerbitzuengatik tarifak murriztuz), familiek beren eginkizunak betetzean ordaindu behar izaten dituzten gastu handiagoak konpentsatzen saiatzeko.

Arartekoak, Hezkuntza Sailak bezala, uste du babestu beharreko egoerak askotarikoak izan daitezkeela. Hala ere, gizarte talde eta kolektibo jakin batzuek zaurgarritasun handiagoa jasaten dute, eta horrek ez du eragotzi behar sail horrek eskainitako hezkuntza zerbitzu guztiak berdintasun handiagoz erabiltzeko zailtasunei erantzutea.

Zaurgarritasun ekonomiko handiagoko egoerak hautematean neurriak har eta proposamenak egin daitezten sustatu beharko litzateke, aipatutako pertsonak arlo eta maila guztietako hezkuntza zerbitzuak jasotzeko beren gain hartu behar duten kostu handiagoa neutralizatzen laguntzeko.

Erakunde honen iritziz, Hezkuntza Sailean eztabaidari ekiteko oinarriak ezarri behar dira, sail horrek eskainitako hezkuntza zerbitzuak berdintasunezko baldintzetan erabil daitezten sustatzeari dagokionez aurrerapausoak egite aldera.

Ezin da saihestu gizartearen etorkizuna horixe dela: hezkuntza zerbitzu eta maila guztiak gehiago eta hobeto sustatzea herritar guztien artean, bereziki zaurgarritasun ekonomiko eta sozial handiagoko egoeran dauden pertsonen artean.

4. Ezgaitasunen bat duten pertsonak ikustarazi eta gizarteko esparru guztietan horien irisgarritasuna errazteko, traba eta oztopo fisikoak kendu ez ezik, oinarritzko zerbitzuak, hala nola hezkuntza zerbitzuak, berdintasunezko baldintzetan erabiltzeko aukera izan dezaten eta horietan integra daitezten sustatu behar da.

Arartekoaren iritziz, zerbitzu publikoek beren tarifen egitura antolatzean kontuan hartu beharko lituzkete ezgaitasunen bat duten pertsonak gizarte bizitza komunitarioan integratzerakoan eta bertan parte hartzerakoan dituzten zailtasun





bereziak. Hezkuntza zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak dira horietan adierazgarrietakoak.

Espainiako Konstituzioko 9.2. artikulua herri administrazioei trabak kentzeko eta zaugarritasun handiagoko egoeran dauden pertsonen laguntzeko jardura positiboko neurriak hartzeko betebeharrak ezartzen die, pertsona eta talde horien eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezzen.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen gaur egungo nahiz etorkizuneko integrazioa baldintzatzen duen alderdi bat herritar horiek jasotako prestakuntza da. Izan ere, zenbat eta prestakuntza maila handiagoa izan, orduan eta kapazagoak izango dira gizartean parte hartzeko eta orduan eta hobeto integratuko dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da administrazioek pertsonak horiek hezkuntza zerbitzu guztiak erabil ditzaten sustatzea, desparekotasun egoera batetik abiatzen direla (botere publikoek hori zuzendu dezakete eta zuzendu egin behar dute) kontuan hartzen duten tarifak ezarriz.

Horrenbestez, herri administrazioek ezgaitasunen bat duten pertsonen familien eta ezgaitasunen bat duten pertsonen sustapenerako neurriak abian jar ditzakete prezio publikoetan kolektibo horrentzako hobariak aplikatuz.

5. Alde horretatik, ezin dugu ahaztu Hezkuntza Sailak bere prezio publikoen hobariak egokitzeko eta beste batzuk ezartzeko, indarrean dagoen legerian ezarritako salbuespen, murrizketa eta hobariez gain.

Horri lotuta, irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legearen testu bategina onartzeko denak, prezio publikoak ditu hizpide 31. artikuluan eta hurrengoetan, eta hau dio:

“31. artikulua.– Eskumena.

Prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko dituzte, elkarrekin, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta kasuan kasuko sailak, hots, zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen erakundearen gaineko sailak.

32. artikulua.– Zenbatekoa.

1.– Prezio publikoak kasuan kasuko jarduerak gauzatzearen edo zerbitzuak ematearen kostuak berdintzeko adinakoak izango dira, gutxienez, eta





zenbateko zehatza erabakitzeke, kontuan izango da, betiere, jarduera edo zerbitzu horiek gizarteari dakarkiote onura.

2.– Gizartearekin, ongintzarekin, kulturarekin edo herri-onurarekin zerikusia duten arazoak direla eta, aurreko puntuan aurreikusitakoak baino prezio publiko merkeagoak ezar daitezke, diruz lagundutako prezioaren parte aurrekontuaren zein diru-sailetatik zuzkituko den erabaki ondoren.

3.– Halaber, eta aurreko puntuan aurrekontu-zuzkiduraz esandakoaren ildotik, ordaintzera beharturik daudenen egoera edo jardueren ezaugarri bereziak kontuan harturik, prezio publikoen salbuespenak eta hobariak ezarri ahal izango dira. Prezio horiek, ezartzen dituen xedapenaren bidez ezarriko dira.

33. artikulua.– *Prezio publikoak ezartzea.*

1.– Lege berezi batean bestelakorik ezarri ezean, prezio publikoak honela ezarri edo aldatuko dira:

a) Prezioa kobratu behar duen organo edo erakundearen gaineko sailburuaren aginduz, organo edo erakunde horrek proposaturik.

b) Merkataritzako erakunde autonomoek zuzenean ezarri edo aldatuko dituzte beren ardurapeko zerbitzuei edo ondasunei dagozkien prezioak, beren gainean dagoen sailak baimena eman ondoren.

2.– Prezio publikoak ezarri edo aldatzeko proposamenarekin batera, ekonomi eta finantza-txostena aurkeztuko da, non prezioen zenbatekoak eta kostuen finantzaketa-maila justifikatuko baitira.

3.– Prezio publikoak ezarri edo aldatzeko proposamenen onarpenarekin batera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren txosten loteslea joango da.

4.– Prezio publikoen zenbatekoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, hala lehen aldiz ezartzen direnean nola aldatzen direnean”.

Azkenik, Arartekoak gogorarazi behar du ezgaitasunak ezgaitasuna duenaren ahalmen ekonomikoa ez ezik haren familia-ingurunearena (aurreko ahaideak, ezkontideak eta ondorengoak) ere murrizten duela, benetan eskuragarri duten errenta mugatzen duten gastu gehigarri batzuk gain hartu behar baitituzte senideek. Zentzu horretan, ezgaitasunen bat duten pertsonak gizartean sartzeko eta bertan normaltasunez parte hartzeko ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dute egunerokotasunean, beraz, neurriek ahalegin hori kontuan hartu beharko lukete.





Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari iradokitzen diogu ezgaitasunen bat duten pertsonen sustapenaren inguruko ikuspegia aintzat har dezan, egiten dituen hezkuntza zerbitzuei esleitutako prezio publikoak zehaztean.

